

# txintxarri 30 urte!

## Giro tristea alaitu dute

Eguraldi txarra ez da oztopo izan lasarteoriarrek Euskal Jaia ospatzeko / 7

## Eurena erakutsi dute, Txinan

Gero Axular dantza taldeko kide Andoni eta Garazi Iparragirrek Txinako jaialdi batean parte hartu dute / 8-9

**Motibazio politikoko indarkeria kasuak gogoan izan dituzte, Memoriaren Egunean** / 3

**Irundik Baionara egingo dute 23. Korrika, datorren urteko martxoaren 14tik 24ra** / 4

**'Txapasen kaxa magikoa' izena du Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan lan berriak** / 6

**Ostadar Inklusio taldeko Ander Goenaga surflaria munduko laugarren izan da** / 10

**Ekaitz eta Mikel Kortajarena anaiek laugarren postua eskuratu dute RACVN kopan, rallyan** / 11

guuk

MÁSMÓV!L

yoigo

pepephone

**GIGAK ETA ENTRETENIMENDUA?  
PLAN PERFEKTUA!**

**NETFLIX DUTEN  
ZUNTZ + MUGIKORREKO  
GURE TARIFAK**

**ETA GIGA GEHIAGOREKIN  
NABIGATZEKO**

FIRST  
CONNECT

SAGARDOTEGI KALEA, 4. LASARTE-ORIA, GIPUZKOA | TELF: 611 81 98 51



Lasarte-Oriako batzorde mistoko kideek agerraldia egin dute Oriarte Landaberri ikastetxe atarian. TXINTXARRI

## Greba, mugarri, zaintza erdigunean jartzeko

Hilaren 30erako lanuzte orokorra deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak. Ekintza horrekin bat egin eta egitarau bat prestatzen ari da Lasarte-Oriako batzorde mistoa egun horretarako; herritarrak aurrerago egingo dituen bileretan parte hartzeraz deitu ditu

### Txintxarri

Bi aste baino gutxiago falta dira Euskal Herriko mugimendu feministak deitutako greba orokorrerako; hilaren 30ean izango da. Lasarte-Oriako batzorde misto bat eratu dute deialdi horrekin bat egin eta egun horretarako egitarau bat prestatzeko. Herritarrak gonbidatu dituzte aurrerantzean egingo dituzten bileretan parte hartzeraz.

Agerraldia baino lehen, bilera egin dute Oriarte institutuko Landaberri eraikinean. Lanuzte hori hizpide izan dute, jakina, baina azpimarratu dute ekintza hori ez dela helburu nagusia, baizik eta mugarri bat izatea "zaintza sistema publiko komunitariora bidean". Izan ere, mugimendu feministak deitutako grebak alor hori jarriko du fokuan. Gure herriko batzor-

deko kideek adierazi dutenez, "denok izango gara zainduak noizbait eta guztioi dagokigu zaintzaren ardura kolektiboki hartzea".

Zaintza lanen pisua historikoki emakumeek eraman dutela nabarmendu dute Oriarte Landaberri institutuko agerraldira bertaratu direnek. "Inoiz ez dira lan aitortuak izan. Are gehiago: politikoki, sozialki eta ekonomikoki ikusezinak eta gutxietsiak izan dira". Bizitza sostengatzeko funtsezkoak diren zaintza lanak "ezinbestekoak" direla gero eta onartuago dagoela esan dute, baina "ikusezinak" izaten segitzen dutela Euskal Herrian: "Eremu pribatua eta inolako aitortza sozialik zein ekonomikorik gabe".

Alor horretako enpleguari dagokionean, "gero eta handiagoa den pribatizazio egoerak" egoera "okertu" egi-

ten du, batzordeko kideen aburuz. "Indarkeria eta desberdintasunaren ardatz dira emakume langileentzat: arraza, atzerriartasun egoera, adina, sarea eta estatus soziala gurutzatuz eta berrelikatuz". Norabide horretan, langile klaseko emakumeek jarraitzen dute zaintza sostengatzen, baldintza hauetan: lanaldi bikoitzak eginda; zerbitzu publiko "urri eta prekarioak" ordezkatuta; denera iritsi ezinda; eta norberaren bizitza alde batera utzita.

Egoera hori izanik, beharrezko ikusten dute zaintza eskubide kolektiboak, hau da, pertsona guztiek, bizitza osoan zehar arreta hori eskaini eta jaso ahal izatea, "askatasunez eta konpromisoz".

### Hurrengo borobilean, zaintza

Greba feminista orokorraren atarian, Borobilean elkarteak iragarri du zaintza izango duela hizpide hurrengo saio irekian. Hilaren 23an izango da, Oriarte Landaberrin, 19:00etan.

Hauek izango dira gonbidatuak: Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta, Maitelan kooperatiba, zaintza enpresa pribatu bateko langile bat, Zorroaga fundazioko behargin bat, Asunak talde feminista eta Izan Inurri elkarteak.



NEURE KABUZ  
LIERNI REKONDO

### Dena ala ezer ez

Zaintza hizketagai dugun hilabete honetan, herrigintzaz, ekintza sozialez eta militantzia esparruez hitz egin nahiko nuke, norbere buruaren zaintzaz eta sare kolektiboaz.

Beti erakarri izan naute esparru hauek, argi eta garbi ikusten baitut sinesten den horren alde egiteko modu ekintzaile batean egin behar dela lan. Baina inoiz ez dut sentitu parte hartze aktiboa izateko nahikoa tarte izan dudarik. Errudun sentitu izan naiz, asumitu izan dut ezer gutxi eskaini dezakedala eta azkenean utzi.

Gaur egungo munduak badu likidotik asko. Konturatzeko dena badoa, guk uste baino bizkorrago, eta denboraren pertzepzioa ere aldatu da. Gauza guztietara iritsi nahi dugu, ahal bada gure ehuneko ehuna emanez bizitzako esparru guztietan. Eta hala ez bada, ez da.

Herrigintzak, militantziak, ekintza sozialek konpromisoa eskatzen dute ezinbestean. Erabat ados. Baina, askotan ezin diogu eskaini nahi beste denbora. Bizitzak hogeita lau ordu eskaintzen dizkigu egunean eta hogeita sei beharko genituzke erritmoa jarraitu ahal izateko. Iritsi nahiko genuke sinesten dugun guzti horren alde egitera, baina ez gara iristen. Eta askotan eman dezakegun hori nahikoa ez dela irizita alde batera gelditzen gara.

Ni ere aritzen nintzen baina orain ezin dut bilertara joan eta, hiru urtez egon naiz taldean baina kanpora ikastera joan naiz eta, seme-alabekin gora eta behera nabil eta ezingo nioke denbora gehiegirik eskaini, ez dut lan ordutegi finkorik eta ezingo dit jarraipen etengabeko bat egin eta alde egiten dugu.

Gutxi hitz egiten da militantzia, lana eta zaintza arduren kontziliazioaz. Errealistak izanik, oso jende gutxi dago esparru hauei bere denboraren zati handi bat aktiboki eskaini ahal diotenak. Eta gehiengoak, gure haragitan bizi izan dugun presioa dela medio, uste dut bagarela horretaz kontziente.

Ez nabil konpromiso eskariaren kritikan. Zalantzarik gabe, konpromisoa hartzea beharrezkoa da helburu batzuk betetzea aurreikusten den unetik. Bakoitzaren pertzepzioaz ari natzaizue. Uste dut tradizioetik jaso dugun mezua izan dela "dena edo ezer ez" delako hori. Eta hori tatuatuta daukagula barruan, errudun sentituzeraino, konturatzeraino ez garela gai erdibideko zerbait bisualizatzeko.

Baina, agian, dena ez da zuria edo beltza. Agian, ezin izango duzu astero bileretara joan, baina, egiten diren ekintza ezberdinak iragartzeko kartelak diseinatzeaz arduratu zaitezke. Agian, ezingo diozu proiektuari etengabeko jarraipen bat egin, baina, prest egon zaitezke herriko elkarte ezberdinetara joateko horren berri ematera. Edo agerraldietako testuak idatzi ditzakezu etxetik, ala harreman sarea zabaltzeaz arduratu.

Askotan hobe da hamarreko talde handi batean bakoitzaren ekarpen txikiak baliatzea aurrera egiteko, topera egongo den hiruko talde baten gainean zama ezartzea baino. Hasi gaitzen pixkanaka gure pentsaera zurrunka aldatzen eta daukagun horrekin lan egiten nahiko genukeen hori alde batera utziz, mundua likidoa da eta.

### Hilaren 30erako egitaraua

Hau da Lasarte-Oriako batzordeak hilaren 30erako prestatu duena:

- **10:00etan**, kalejira bat egingo dute, Lasarte-Oriako zaintzaren egoera zein den ezagutzeko helburuz.
- **12:00etan**, agerraldi masibo bat aurrera eramango dute, Okendo plazan.
- **18:00etan**, Buruntzaldean deitutako manifestazioarekin bat egin eta Hernanira joango dira, ekintza horretan parte hartzeraz.



Udal ordezkariak, Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldeko kideak eta herritarrek parte hartu dute ekimenean. TXINTXARRI

## Oroitzearekin batera, lore sorta eskaini diete

Lasarte-Oriako motibazio politikoko indarkeria kasuak gogoan izan dituzte Memoriaren Egunean. Ohi bezala, Askatasunaren parkean egin asmo zuten ekitaldia, baina eguraldi txarra medio, Mercero gunera lekualdatu dute

### Txintxarri

Ekitaldian izan dira udaleko alderdi politikoetako ordezkariak, baita Bizikidetza taldekoak ere; herritar batzuek ere bat egin dute deialdiarekin.

Hitzorduari hasiera emateko, Agustin Valdivia alkateak hartu du hitza, eta aretoan bildutakoak agurtzearekin batera, azaldu du aurtengo ekitaldia prestatu eta dinamizatzearen ardurua Herritar Foroarena izan dela. Hala, nabarmendu du mahai politikoak lanean jarraitzen duela Lasarte-Orian "bizikidetza eta bakea" sustatzeko. Baketik erakundeko Bakea eta Bizikidetza arloko ordezkari Maialen Lizarralderi eman dio hitza gero.

Manoli Urritegi Arambururen idatzi bat izan du ahotan Lizarralde, eta horrekin hausnartzera gonbidatu ditu aretoan bildutakoak. Javier Urritegi Arambururen arreba da Manoli; ETak hil zuen 1991n, Donostiako Larratxo auzoko tabernan. Gertakari hura abiapuntu hartuta idatzitako testu baten en-

tzule izan dira hitzordura bertaratu direnak.

### Lore eskaintza

Hitzartzeak amaituta, lore eskaintza egin dute. Arrosa zuri bana hartu dute, eskuartean, ordezkari politikoek eta zenbait herritarrek ere bai, eta lorontzian jarri dituzte, banan-banan. Minutu bateko isilunea egin dute gero, eta Lourdes Iriondoren *Askatasuna zertarako?* abestia kantatuz eman diote amaiera ekitaldiari.

## Nekazaritza jardueretarako dirulaguntzak onetsi dituzte

Urbanizagarria ez den lurzoruko ustiategiak hobetu edo modernizatzea da lerroaren helburu nagusia

### Txintxarri

Nekazaritza jardueretarako dirulaguntzen oinarriak onartu berri ditu udal korporazioak, ohiko udalbatzarrean. Helburu nagusia da urbanizagarria ez den lurzoruan dauden ustiategiak hobetu edo modernizatzea, udalerriko lehen sektorea indartzeko. Ekarpene horren onuradunak izango dira eskaerak emateko momentuan Gipuzkoako Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatuta dauden pertsona titularrak. Interesa dutenei hitzordu bat

emango die udalak, 30 eguneko epean gutxienez, iradokizun edota erreklamazioak aurkez ditzaten.

Nekazaritza jarduerak finantzatzeko dirua ezingo dute itzuli onuradunek eta gehienez ere gastatuko dutenaren %10 finantzatuko du udalak, gehienez ere, 3.000 euro ustiategi bakoitzeko. Hori bai, titularrak 35 urte baino gutxiago baditu edo ustiategia berria bada (bi urte edo gutxiagoko antzinatasuna), gehieneko ekarpena 4.500 eurokoa izango da.



TXINTXARRI

## Argiak jartzen hasi dira

Lasarte-Oriako Udalak iragarri du Gabonetako argiak jartzen hasi dela. "300.000 LED baino gehiagok argia eta kolorea emango diete herriko kale eta plazei". Abenduaren 2an piztuko dituzte, kaleko argiztapenarekin batera, eta urtarrilaren 7an itzaliko. Maykolux enpresak egingo du instalazioa, 39.400 euroren truke.

### SALGAI:



Ttakuneko bulegoan eta sarean [labur.eus/aterkiak](http://labur.eus/aterkiak)



**10€**  
aterki 1

**16€**  
2 aterki



aterkiak

Euskararen aterpe!!

txintxarri

# Martxoaren 14tik 24ra egingo dute 23. Korrika

Irundik Baionara artekoa izango da euskararen aldeko lasterketa erraldoia, 'Harro herri' lelopean aurrera eramango dutena. Antolatzaileek erabaki dute Azterketak Euskaraz kolektiboa omentzea. Ibilbide osoaren berri aurrerago emango dute

## Txintxarri

Korrikaren 23. aldiaren urtea izango da datorrena, 2024a. Euskararen aldeko lasterketa erraldoi horren nondik norakoak berriki aurkeztu dituzte Donostiako San Telmo museoan. Oraindik ez dakigu lekukoa Lasarte-Oriara zein egun eta ordutan iritsiko den, baina datu orokorrago batzuk bai: esate baterako, Irunen hasiko dela, martxoaren 14an, eta Baionan amaitu, hamar egun geroago. *Harro herri* izango da leloa, arrazoi honengatik: "Aurreko edizioeko parte hartze masiboak argi utzi zuen gure hizkuntzaz harro gaudela eta guztion artean komunitate sendoa osatzen dugula". Korrikaren arduradun Ane Elordik eta AEKren Artekarriz Kontseiluko lehendakari Aitziber Balantategik eman dituzte ekimenaren xehetasunak.

Agerraldi horretan, aipatutakoaz gain, nor omenduko duten jakinarazi dute: Azterketak Euskaraz kolektiboa. Horrekin, aitortu nahi dute Ipar Euskal Herriko gazte ugari baxoa eta brebeta izeneko azterketak euskaraz egin ahal izateko egindako borroka. "Euren ikasketen une oso erabakigarri batean, gazte horiek herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko hautua egin dute, jakinda kaltetuak izan-



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omendu zituzten 22. Korrikan. TXINTXARRI

go direla beraien kalifikazio eta emaitza akademikoak", nabarmendu du Elordik.

## Harro bai, konforme ez

Lehen aipatu moduan, *Harro herri* izango da 23. Korrikaren leloa. Edonola ere, Balantategik eskatu du harrotasun hori "konformismoarekin" ez nahasteko. Erakundeengan jarri du arreta batez ere, esan baitu "ardura garrantzitsua" dutela euskararen normalizazioan. "Herritarrek egiten duten esfortzuarekin batera, hizkuntza politika ausar-

tagoa eta inbertsioak egin behar dituzte". Diruaz hitz egiten hasita, AEK-ko ordezkariak adierazi du 23. Korrikan jasotako dirua "Euskal Herri osoan euskara normalizatzeraz" bideratuko dutela.

TXINTXARRI-k gertutik jarraituko ditu 23. Korrikari buruzko albisteak eta ibilbide osoa nolakoa izango den iragarri bezain laster emango du horren berri. Horrekin batera, ekimen horri buruzko informazio guztia jasoko duen kanal berezi bat sortuko du.

## Lan ona egin dute Xuhakan elkarteko kideek Almazanen

Espainiako Kopa eta Txapelketa jokatu dituzte bi kidek; datorren denboraldirako mailaz igotzea lortu dute

## Txintxarri

Soriako Almazan herrian izan dira Xuhakan Txakur Elkarteko bi ordezkari, erabilgarritasunezko kirol mendetasuneko Espainiako Kopan nahiz Txapelketan parte hartzen. Podiumetik kanpo geratu badira ere, biek ala biek lortu dute datorren denboraldirako mailaz igotzea.

Jose eta *Sombra* lehen aldiz aritu dira horrelako proba batean, eta urduri egon izanagatik, 73 puntu eta maila igoera lortu dituzte. Xuhaneko kide Juan Mari Encinasek nabarmendu duenez, "faboritok ere akatsak egin dituzte proba horretan". Bestalde, Mattin eta *Troi* lehiatu dira Almazanen, eta podiumetik gertu geratu, 74 puntu bilduta. "Jostailuzko basurde bat izan da zakurrak gainditu beharrezko oztopo bat eta zaila egin zaio; horrek jaitsi egin du kalifikazioa".



Jose eta 'Sombra' txakurra. XUHAKAN

Edonola ere, bikote horrek ere kategoriaz igotzea lortu du datorren denboraldira begira.

Encinasek eskerrak eman dizkio Teresa Rabatt epaileari egindako lanagatik eta baita Almazango herritar eta udalari ere, instalazioak utzi izanagatik.

## Euskal Inauteriei buruzko hitzaldi bat antolatu dute

Landaberri ikastolak eta bertako guraso elkarteak *Zer dago Euskal inauterietako festaren oinarrian? Zer ospatzen dugu inauteri jaietan?* hitzaldia antolatu dute, erritu hori testuinguruan jartzeko. Oier Araolaza antropologo, idazle eta dantzariak emango ditu Euskal Inauterien gaineko azalpenak hilaren 22an, Antonio Mercero aretoan, 17:30ean.



Garaikoetxeako ospakizuna. TXINTXARRI

## Kanpainako saridunek beste gozatu eder bat hartu dute

Aterpea merkatarien elkarteak Gozatu kanpainaren sariak banatu ditu: herriko dendetan erosketak egiteko bonuak

## Txintxarri

Aterpea merkatarien elkarteak amaitu berri den Gozatu kanpainako sariak banatu ditu, udal ordezkarien laguntzarekin, Oihana Izpura herritarrek duela gutxi ireki duen Lilura liburu

dendan (Hipodromo etorbidea, 8). Herritarrek pozarren jaso dituzte herriko dendetan erosketak egiteko bonuak.

Hauek izan dira saridunak: Arantzazu Larrañaga, Marian Burgos, Isabel Rodriguez, Kon-

txi Berasategi, Marisol Gonzalez, Maria Luisa Gaztañaga, Miren Garcia eta Fernando Furundarena. Horieta bakoitzak 10na euroko 25 erosketa txartel poltsikoratu ditu.

Aterpeko lehendakari Miguel Angel Prietok eskerrak eman dizkie kanpainan parte hartu duten erosleei eta egitasmoa babestu duen Lasarte-Oriako Udalari. Lasarte-Oriako merkatarriz bultzatzeko ekimenak prestatzen jarraituko dutela aurreratu du.



Aterpeko kide, saridun eta udal ordezkariak. TXINTXARRI

# MULTIÓPTICAS

# BLACK FRIDAY

Zure ikusmena  
zaintzea  
garrantzitsua da  
urte osoan, baina  
azaroan zure  
betaurrekoak,  
ukipen lenteak,  
eguzkitako  
betaurrekoak eta  
osagaiak preziorik  
onenean berritu  
ditzakezu.



## 2mó 89€

erreflexuen aurkako  
betaurreko graduatuak

## 2mó 199€

erreflexuen aurkako  
betaurreko progresiboak



# %20 dtua.

betaurreko graduatuetan +  
2. betaurrekoa OPARI

BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK BLACK  
FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY FRIDAY

943 37 74 55  
Kale Nagusia, 15.  
LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

[www.multioplicas.com](http://www.multioplicas.com)   

# Pailazoen bidelagun berria izango da Txapas

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek disko-liburu bat aurkeztu dute, *Txapasen liburu magikoa* izena duena. Hamasei abesti ditu, horietako gehienak abenturaren protagonistak berak eginak, Xumela koruko zuzendarietako bat den Josu Txapartegi *Txapas* zarauztarrak

## Txintxarri

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek labetik atera berri dute haien lan berria: *Txapasen kaxa magikoa*. Protagonista nagusia, Josu Txapartegi *Txapas* bera, besteak beste gure herriko Xumela koruko zuzendaria dena. Talde horretako kide ugari izan dira disko-liburuaren aurkezpenean, Zarauzko Modelo aretoan.

*Olatuek botila ekarri dute Txaparentzat itsasoaren beste aldetik... Zer ote du barruan? Jantzi sudur gorria eta zatoz gurekin Txapasen kaxa magikoak gordetzen dituen sekretuak ezagutzera... Dzzit!* Horrela hasten da Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen disko-liburu berria, Josu Txapartegi *Txapas* (Zarauz, 1946) irakasle, musikari eta euskaltzalea protagonista duena: *Txapasen kaxa magikoa* izena du eta hamasei abestik osatzen dute, horietako gehienak zarauztarrak berak konposatutakoak. Jaioterrian ez ezik, oso estimatua da Lasar-



'Txapasen liburu magikoa' lanaren aurkezpena, Zarautzen. KATXIPORRETA

te-Orian ere, Xumela koruaren zuzendarietako bat delako. Talde horretako kide ugari lagun izan ditu lanaren aurkezpenean, Zarauzko Modelo aretoan.

Musika moldaketak Xabier Zabalak egin ditu, Arantxa Ur-

bek idatzi du ipuina eta Irri-marrak ilustratu. Esan bezala, Txapasen sorkuntza lana hartu dute oinarri eta istorio zirraragarri bat osatu, aipatu diziplina artistiko horiek guztiak uztartuta.



SORGIN JAIK

## Iragana, oraina eta geroa

'Iragana, oraina eta geroa: nondik gatoz eta nora goaz?' saioa aurrera eramanez dute Sorgin Jaiak eragileko kideek, Xirimiri elkartearen. Izenburuak ongi dioen bezala, festa alternatiboen bilakaera izan dute hizpide eta horrekin batera datorren urteko jaiak buruz hitz egiten hasi dira. Beñat Iriondo eta Uxue Loinaz gonbidatu dituzte hastapenetako urteez eta haien bizipenez hitz egitera.

### Birziklapenari buruz hitz egingo dute Herriko Etxean

Lasarte-Oriako PSE-EEK jakinarazi du hiri hondakinaren kudeaketari eta birziklapenari buruzko hitzaldi bat aurrera eramango duela hilaren 20an, astelehenerekin, 18:00etan, Froilan Elespe Herriko Etxean (Kalbario bidea, 7). Edukiontzien erabileraz eta Lasarte-Oriako Udalak indarrean dituen ordenantzez hitz egingo dute, batez ere.

### Errigorako produktuak banatuko dituzte Ttakunenean

Lasarte-Oriako boluntario taldeak jakinarazi du hilaren 21ean eta 22an (asteartea eta asteazkena) banatuko dituela Errigorako produktuak, Ttakunenea elkartearen (Iñigo de Loiola kalea, 6) 16:00etatik 20:00etara. "Mila esker Lasarte-Oria, ederra izan da Euskarari puzka kanpaina; mila esker denoi", adierazi dute kideek.

## Bertsolaritza eta umorea

Berto clown saio dibertigarri bat aurrera eramanez zuten hilaren 9an Jalgi kafe antzokian. Gai jartzailearen gidaliburua erreferentziatzen hartuta, Bea Egizabalek proposatu zien zertaz abestu Ane Labaka, Miren Artetxe eta Eli Pagola bertsolariei. Taberna leporaino bete zuten ikus-entzuleek, eta protagonisten lana gogotik saritu.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Galiziatik, reggae dantzagarria

Bush Doctors Band taldeak dantzan jarri zuen Jalgi kafe antzokia hilaren 10ean. Galiziatik gure herriraino errepidez etorri ziren, eta trafikoaren egoeratik nahi baino beranduago ekin kontzertuari. Edonola ere, merezi izan zuen itxaronaldiak, kalitatezko reggae doinuak partekatu zituztelako ikus-entzuleekin.

# Giro grisa alaitu du Euskal Jaiak

## Egitaraua, egun osokoa

Eguraldi txarra ez da oztopo izan euskaraz eta euskal kulturaz gozatzeko. Egitarauko zenbait jarduera halabeharrez moldatu behar izanagatik, giro ona izan zen hilaren 11ko Euskal Jaietan eta gogotik gozatu zuten herritarrek. Txakun Kultur Elkarteak aurrera eraman zuen ospakizun hori, herriko zenbait eragilerekin elkarlanean eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin. Herriko txistularien taldeak esnatu zuen herria, erdigunean barrena doinu alaiak lau haizetara zabaldua. Alaia, alaia, azokaren hasierako itxura ez zen izan horrelakoa, baina goizak aurrera egin ahala bizia hartu zuen Okendo plazak, batez ere, euriak tregoa apur bat eman zuenean. Feriara bertaratu zirenek aukera izan zuten herriko artisauen produktuak erosteko eta baita Plaza Dantzako lagunekin batera gorputza mugitzeko ere.

Arratsaldea barre algaraka hasi zuten Jalgi kafe antzokira bertaratutakoek, Bea Egizabalen bakarriketa saioan. Ondoren, Oaintxe in deu! txarangak girotu zuen arratsaldea, erdigunean barrena ibilita.



Herriko txistularien taldea, Okendo plazara sartzeko. TXINTXARRI



Helduen urratsak imitatu zituzten gaztetxoek, Plaza Dantza saioan. TXINTXARRI



Bertako produktuak erosi zituzten herritarrek azokan. TXINTXARRI



Bea Egizabalen bakarriketa, Jalgin. TXINTXARRI



Dotore asko atera zen jantzita lasarteoriatar kuadrilla hau. TXINTXARRI

### Operako gau bat zer den

Sasibil Lirika Elkarteak *Una noche en el teatro de la ópera* antzezlanaren emanaldia aurrera eraman zuen hilaren 10ean, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Umorea eta euren ahotsekin abestutako musika pieza bikainak tartekatu zituzten ikuskizunean parte hartu zuten aktore eta musikariek. Ikus-entzuleek gogotik txalo egin zuten emanaldi amaieran.



TXINTXARRI

### Mari etorri da, Anbototik

Logela Multimedia taldeak *Anbotoko Mari* antzezlanaren emanaldia ekarri zuen Lasarte-Oriara hilaren 11n. Gari, mutiko txoro bat, lagunekin haserretu eta Anboto mendira joango da: Mariren haizulora sartu eta harri magiko bat lapurtuko du, aurkitutakoa laguneri erakusteko. Ostu diotena berreskuratze aldera, Mari bera mutikoaren atzetik abiatuko da Tartalo, iratxo, jeinu eta beste izaki mitologiko batzuekin batera.



TXINTXARRI

**Maddi Zaldua**

Txinako Taiyuan hiriko Xanshi probintzian aurrera eramaten den Qingxu International Folk Art Festival jaialdian parte hartu du Donostiako Gero Axular dantza taldeak, eta bertako musikari eta dantzari dira Andoni Iparragirre Tolaretxipi (Lasarte-Oria, 1968) eta Garazi Iparragirre Martinez (Lasarte-Oria, 2004) aita-alabak. "Herri txiki bat" bezala aurkeztu diete bertakoek euren bizilekua, baina 5.000.000 biztanleko eremu batekin egin dute topo lasarteoriatarrek. Ez horrekin bakarrik, ordea. "Sekulako esperientzia" bizita itzuli dira etxera, "oso pozik" eta oraindik ere bizipen guztiak asimilatzeke. Bidaiaren berri emateko bildu dira TXINTXARRI aldizkariarekin.

**Nola sortu zitzaizuen bertara joateko aukera? Zein izan da aitzakia?**

**Garazi Iparragirre:** Txinan bi festa nagusi ospatzen dituzte: Urte Berri Txinatarrak, eta urriaren 1a, Txinaren Eguna. Azken horren harira aurrera eramaten duten jaialdian parte hartzera joan gara.

**Andoni Iparragirre:** Gure dantza taldean lan asko egindakoak gara, emanaldi asko emandakoak, hortaz, taldea nahiko ezaguna dela esan dezakegu. Aurten hiru irteera egin ditugu azken honetara joan aurretik: Austriara, Txekiar Errepublikara eta Frantziara.

Jaialdi handi horretan orain arte bertakoek baino ez zuten parte hartu, eta jakin genuen, aurten nazioarteko bihurtu nahi zutela. Esan ziguten bazutela bertan parte har zezaketen dantza talde batzuekin osatutako zerrenda, eta tartean zegoen gurea ere. **G.I.:** Frantzian izan ginenean, bertara etorri ziren txinatarrak, gure emanaldia ikustera. Gustuko izan zuten, han bertan gurekin harremanetan jarri ziren, eta esan ziguten Txinan elkar ikusiko genuela.

**Poz handia izango zen zuentzat, ezta?**

**A.I.:** Hasiera batean, gonbidapena ofizialki jaso arte ez genuen ezer esan. Gonbidapen gutuna jaso genuenean sinetsi genuen baietz, bagindoazela Txinara.

Harrigarria da munduko zortzi talde parte hartzailearen artean bat gurea izatea. Hori, niretzat, izugarria izan da, eta dantza taldean lanean ari direnentzako zer esanik ez. Egiten dugun lanaren trukean jaso dugun opari handi



Garazi eta Andoni Iparragirre, aita-alabak, Txinatarrak, TXINTXARRI-rekin elkarrizketarako batu ziren egunean. TXINTXARRI

# "Ezinezkoa da bizitakoa hitzetara ekartzea"

**GARAZI ETA ANDONI IPARRAGIRRE GERO AXULAR DANTZA TALDEKO KIDEAK**

Euskal musika eta dantza tradizionalak erakutsi dituzte lasarteoriatar senideek, Txinan. Bi aste pasatxoko bidaia egin dute, eta horretan bizitakoak kontatu dituzte

bat izan da. Egiten ari garena ona dela sinistu eta bide horretan aurrera jarraitzeko oso baliagarria.

**Zein datatan egon zarete Txinan?**

**A.I.:** Irailaren 27an abiatu ginen Euskal Herrietik, eta urriaren 12an itzuli.

**Nola antolatzen da horrelako bidaia bat?**

**G.I.:** Abuztuan erabaki zen guztia. Lehenik eta behin, dantza eta musikaren plangintza bat egin zuten zuzendariak. Gero, hori zehaztuta, erabaki zuten zenbat entsegu egin behar genituen forma fisiko ona lortzeko, eta, noski, kalitatezko emanaldiak egin ahal izateko. Asteaz sei egunez entseatzeko ibili ginen, bi

orduz, egunero, musikariekin batera.

**A.I.:** Antolatzea errazena izan daiteke. Horrelako kasuetan falta izaten dena dirua da. Bidaia honen kasuan, ordea, ez da horrelako zailtasunik egon, izan ere, txinatarrak hartu baitute gastu guztia euren gain; guk ez dugu xentimo bakar bat ere jarri.

## "HARREMANAK EGIN DITUGU; ASKOTARIKO KULTURAK EZAGUTU ETA HORIEZ IKASI AHAL IZAN DUGU"

**G.I.:** Ezin dugu ahaztu Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere. Txinara joan ahal izateko bisatua egitea ezinbestekoa da, eta horri dagokion gastuari erakundeak erantzun dio.

**Eta dagoeneko, etxetik nola begiratzeko diozue han bizitakoari? Zer nolako esperientzia izan da?**

**A.I.:** 55 urte ditut, eta dantza taldearekin alde batera eta bestera ibilia naiz; nire bizitako bidaia guztiak horri esker egin ditut. Urte hauetan guztietan, oihartzun handiko bidaia eta emanaldiak egin ditugu, baina Txinan bezainbesteko arrakasta ez dut orain arte bizitu. Jendeak gurekiko hainbesteko miresmena adieraztea harrigarria izan da. Zenbat aldiz esan ote diodan neure buruari 'hau nola da posible!'.

**G.I.:** Niretzako ere izugarria izan da. Nik aitak baino dezente gutxiago bidaiatu dut, baina zertxobait ibili naiz dantza taldearekin eta esperientzia hau, sekulakoa izan da.

Harreman asko egin ditugu beste taldeekin; askotariko kulturak ikusi, ezagutu eta horiez ikasi ahal izan dugu. Harreman estua egin dut, batez ere, Filipinako, Ekuadorko, eta Georgiako parte hartzaileekin, eta Mexikoko batzuekin ere bai. Gaur-gaurkoz eguneroko kontaktuan jarraitzen dugu, sare sozialen bidez. Lagunak egin ditut, eta horrekin guztiarekin geratzen naiz.

Ezinezkoa da bizitakoa hitzetara ekartzea.

**Zuokin batera, zein beste taldek parte hartu du jaialdian?**

**G.I.:** Zortzi herrialdeetako talde banak parte hartu dugu: mexikarrak, ekuadorkoak, frantziarrak, bulgariarrak, georgiarrak, txinatarrak, filipinarrak eta gu, euskaldunak.

**Zenbat emanaldi egin dituzue?**

**G.I.:** Lehen hiru egunetan entseguak egin genituen, agertoki ezberdinetan. Jaialdia urriaren lehen hasi zen, eta 7an amaitu.

**Eta zer-nolako erakustaldiak izan dira. Zer erakutsi duzue?**

**G.I.:** Ez ditugu bestelako gure emanaldietan egin ohi ditugun koreografiak erakutsi, izan ere,





Andoni Iparragirre, Txinako bidaian, txistua jotzen. GERO AXULAR

bidaietara joaten garenean, normalean, hemengoa erakustera joaten baikara.

**A.I.:** Euskal Herriko tradiziozko dantza eta musikak ezagutarazi ditugu: Agurra, Alpagata, Ezpata-dantza, Txotxongilo, Uztai-dantza, Brokel, Makil handi, Zuberua, Fandango eta Arin-arin eta *Iparra* izeneko banango bat ere bai. Azken hori nik sortua da, eta izenak gure abizenari egiten dio keinu. Zuberua, adibidez, oso deigarria da ikuslentzat; dantzaria edalontzi gainera salto egiten ikusteak txunditu egiten ditu.

**G.I.:** Dantza horrekin badugu anekdota bat, gainera. Edalontzia ardo apur batez bete behar izaten da, horren gainean salto egin behar izaten baita, eta dantza amaieran topa eginez edaten da edari hori. Bada, zailtasunak izan genituen hori guztia azaldu eta ardo lortzeko, eta, azkenean, Coca-Cola jarri genion. Bide batez, kontatu, txinatarrez topa egiten ikasi dugula. Dantza horrekin

**"BIDAIETARA JOATEN GARENEAN, HEMENGOA ERAKUSTERA JOATEN GARA"**

amaierako topa emanaldia egiten ari garen lekuko hizkuntzan esaten baitugu beti; gānbēi esaten da txineraz.

**Eta zer-nolako iritziak jaso dituzue? Nola sentitzen da euskal kultura Euskal Herriatik kanpo?**

**G.I.:** Atzerrian, etxean baino askoz gehiago miresten dute gure kultura.

**A.I.:** Egia da Euskal Herrian badagoela bertako dantza eta musika maite duen jendea, hori ezin uka daiteke. Baina, Txinan, adibidez, bertako kulturari sekulako garrantzia ematen diotenez, kanpoko ere izugarri miresten dute.

Euskal Herrian kosta egiten da aretoa betetzea, eta, aldiz, atzerriara joaten garenean bete-beteta topatzen ditugu. Zergatik da hori? Bada, beraiek euren bezainbeste baloratzen dutelako kanpoko ere. Hemen pentsatzen da euskal dantzen eta musikaren erakustaldi bat betiko berdina dela.

Gureak arreta handia deitzen du etxetik kanpo, hala nola, hanka nola altxatzen den, edo nola dantzatzen dugun makilak joz, edota kutxaren gainean egiten delako, eta abar. Gure musika instrumentuak ere deigarri izaten dira.

**Hori dantzei eta musikari dagokionean. Baina horrelako emanaldietan jantziak erakustea ere badu**

**bere garrantzia, ezta? Horiek ere euskal kulturaren parte dira.**

**G.I.:** Ez gara ohartzen, baina gurea ez da soilik baserriarra. Kontuan hartzen ez ditugun bestelako jantziak ere baditugu, batak bestearik oso ezberdinak direnak, gainera. Horrela, kanpora bidaiatzen dugunean saiatzen gara horietatik guztietatik ahal bezain beste erakusten eta denak errespetatzen, zeren hori ere garrantzitsua baita. Iruditzen zait Euskal Herrian jantziak ondo, diren bezala, jantzeak lotsa eragiten duela askotan, baina atzerrian beste begi batzuekin begiratzen dituzte.

Antolaketa egiterakoan ez da bakarrik dantzan eta musikan jarri behar arreta. Pentsatu behar da gure tradizioa erakustera goazela, beraz hori ondo erakutsi behar dugula, hau da, jantziak ondo prestatzea, eta horiek diren bezala errespetatzea ere garrantzitsua da.

**A.I.:** Guk horrekiko badugu lelo bat: "Jantzi zaitez harrotasunez, baina ez harrokeriaz".

*Gogora ekarri dute emazte eta ama, Amaia Martinez Zamora, bera baita dantza taldeko jantzien arduradun, eta, baita hortik kanpo baserriatr jantziak egiten dihardu.*

**Ikusle multzo erraldoi baten aurrean erakutsi duzue zuen lana.**

**A.I.:** Hori ere harrigarria izan da. Zuzeneko lehen emanaldian, 290.000 pertsona joan ziren gu ikustera. Hori jaialdiaren eremuan, baina handik kanpo ere bildu ziren gehiago; inguruko eraikin altuetan eta kaleetan pantaila handiak jarri zituzten. Kopuru handi hori irudikatzea zaila da, baina, alderaketa bat eginez, Donostian 180.000 pertsona bizi dira.

**G.I.:** Jaialdia aurrera eraman genuen eremua irekia zen. Laku baten aurrealdeko plazan zegoen oholtza. Bertara sartzeko segurtasun tornu batzuk pasa behar genituen. Bertan geundenoz gain, aita esan bezala, aintziraren inguruan zeuden pantaila begira ere jendetza pilatu zen inguruan.

Eszenatokiaren beraren neurriak ere aipagarriak dira: 30 metro zabal eta 12 metro altu neurtzen zituen. Eta horren atzealdean ere, dimentsio berezko beste pantaila erraldoi bat zegoen.

**Eta nola jaso duzue agertoki gainetik pareko ikusle talde erraldoi**

**hori. Sentitu duzue ikara eszenikorik?**

**A.I.:** Nik esaten nion nire buruari, 'baina non gaude!'. Pentsa, inguruko eraikinetako pantaila erraldoietan ikusten genuen geure burua. Harrigarria, txundigarria izan da benetan.

**G.I.:** Inoiz horrelako eszenatoki batean eta hainbeste ikusleren aurrean dantzatu gabe ginen; izugarria. Zeresanik ez dantzan ari ziren bitartean gu grabatzen ari ziren kamera kopuruaz; hamar bat aireko kamera ere uneoro aritu ziren emanaldia grabatzen.

Txinako emanaldiaren aurretik egin genuen erakustaldia Donostiako Konstituzio plazan izan zen, pentsa zenbaterainoko aldea. Eta, aitortu behar dugu, guretzat aipatu leku horretan aritzea polit eta garrantzitsuenetakoa dela; ederra da espazio hori jendez beteta ikustea, baina Txinako...

**Imajina zenezaketan horrelako jaialdi batera zindoaztenik?**

**A.I.:** Imajinatzea ezinezkoa zen.

**G.I.:** Bidaiatu aurretik antolatzailerik bidali zizkiguten errealitate birtualeko argazkiak, non ariko ginen ikus genezan eta

**"ZUZENKO LEHEN EMANALDIAN, 290.000 PERTSONA JOAN ZIREN GU IKUSTERA"**

jaialdiaren eremua nolako izango zen ikusteko, baina horiek ikusita ere, ezin imajina genezakeen topatu genuena.

Segurtasunarena ere deigarria izan da. Hotelean jasotzen gintuen autobusak egunero, eta joan behar genuen lekuraino eraman. Horiek kaleetatik pasatzeko, bideak itxi egiten zituzten gure segurtasunagatik. 200 bat polizia izan ditugu parte hartzaile guztiok zaintzen.

**Zuen lana erakustera joan zarete, baina izan duzue turismorako tarterik?**

**G.I.:** Bai. Bidaiaren azken hiru egunetan izan genuen horretarako aukera. Tenpluz betetako hiri batera eraman gintuzten, eta desfile bat egin genuen, eta dantza erakustaldia ere bai.

Elkarrizketa osoa  
[www.txintxarri.eus-en](http://www.txintxarri.eus-en)



Euskal Jantzi Tradizionalak ere erakutsi dituzte Txinan. GERO AXULAR

## Ostadarreko jubenilak, borrokatutako garaipena

Irugno Vendetta M. senior taldea izan du aurrez aurre talde urdin-beltzak lehen faseko jardunaldian

### Txintxarri

Ostadar Boleibola saileko jubenilak denboraldiko bigarren garaipena erdietsi zuen hilaren 11n, Maialen Chourraut kiroldegian. Enara Hernandez eta Ekaitz Fernandezek zuzentzen duten taldeak lehen faseko jardunaldian Vendetta M. senior taldea izan zuen aurrez aurre.

Neurketa garaipen garbiarekin hasi zuen etxeko taldea, 25-3. Bigarren seta ere Ostadarrek eskuratu zuen, baina talde urdin-beltzeko kideek lan ederra egin behar izan zuten 25-20 irabazteko.

Norgehiagoka kontrolpean zutela zirudien arren, hurrengo zatian etxeko taldeak ez zuen aldaketak egiteko momentuarekin asmatu eta Irungo taldeak eraman zuen saria, 21-25.



Neurketako irudi bat. TXINTXARRI

Horren ostean, prestatzaileek jokalarien jarraibide batzuk eman eta Ostadarreko jokalariek euren jokoak erakutsi zuten. Jokaldiak ederki borrokatu behar

izan zituzten eta sari gisa, 25-19ko emaitzarekin neurketari amaiera eman zioten.

Ostadarreko entrenatzaile Hernandez eta Fernandez pozarren daude taldeak egindako lanarekin: "gauzak erraz jarri ez zizkigun senior taldeari 3-1 irabazi diogu". Izan ere, Gipuzkoako txapelketako lehen fasean bere kategoriako zein senior mailako taldeak nahasten dituen multzoan lehiari dago Ostadarreko taldea.

### Emaitza ezberdinak

Egun bat geroago, Euskal Ligako II. mailako taldeak liga hasiera biribilari jarraipena eman zion. Durango BT izan zuen aurkari etxean eta 3-0 (25-20, 25-23 eta 25-13) nagusitu zen Asier Acuriolaren taldea.

Euskal Ligako taldeak, aldiz, txanponaren bestea alde batera utzi zuten Gasteizen. Ederki lehiatu arren, talde urdin beltzak ezin izan zuen setik eskuratu eta UDAPA Jatorkide senior taldeak eraman zuen garaipena (25-18, 25-23 eta 25-23).

## Ander Goenaga surflaria, Munduko laugarren

Ostadr Inklusio taldeko kidea Kalifornian lehiatu da; Prone 2 mailako kobreako domina jantzi du gazteak

### Txintxarri

Ostadar Inklusio taldeko Ander Goenagak Estatu Batuetan jokatu den Munduko txapelketan parte hartu du Espainiako selekzioarekin. Hilaren 7tik 12ra egokitutako surfeko kirolari onenak bildu ziren Kaliforniako Huntington Beach hirian eta Goenagak Prone 2 mailako kobreako domina jantzi zuen. Espainiako selekzioa bosgarren izan zen.

Lan ona egin zuen lehen egunetik talde urdin-beltzeko kirolariak. Hiru sailkapen saioetako bitan lehen postua erdietsi zuen eta bigarren faserako sailkatu zen arazoz gabe. Horretan ere bere onena erakutsi zuen olatu gainean Ostadarreko kideak eta finala lehiatzeko txartela lortu zuen.



Ander Goenaga, txapelketan lehiari. ISA

Azken saioan Goenagak Davi Texeira brasildarra, Jose Martinez estatubatuarra eta Tomoki Fujiwara japoniarren aurka neurtu zituen indarrak; ez zuen zortetik izan olatueta eta laugarren postuan amaitu zuen lehia.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONALA

Ostadar SKT - Ondarbetz Amaiak Mutriku

Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.

#### GORENGOEN MAILA

Sanpedrotarrak FE - Ostadar SKT  
Larunbata. 15:30. Trintxer, Pasaian.

#### ERREGIONALEN I. MAILA

Texas Lasarte CF - Usurbil FT B  
Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunean.  
Ostadar SKT - Lazkao KE

Igandea. 17:55. Michelin kirol gunean.

#### OHOREZKO JUBENILA

Ostadar SKT - Internacional CD  
Igandea. 16:00. Michelin kirol gunean.

#### JUBENILEN I. MAILA

Intxurre KKE B - Texas Lasarte CF  
Larunbata. 18:00. Elorri, Alegin.  
Landetxa KTCD - Ostadar SKT B

Larunbata. 19:45. Ugalde-Ventas, Irun.

#### OHOREZKO KADETEA

Euskalduna A. SD - Ostadar SKT  
Larunbata. 16:00. Ubitarte, Andoain.

#### KADETEEN I. MAILA

Ostadar SKT (neskak) - Antiguoko KE B  
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.  
Texas Lasarte CF - Idiazabal KE

Larunbata. 14:40. Michelin kirol gunean.  
Danena KE B - Ostadar SKT B

Larunbata. 09:00. Elbarrena, Zizurkilen.  
Ostadar SKT C - Usurbil FT

Igandea. 14:15. Michelin kirol gunean.

#### INFANTIL HANDI, KOPA

Hondarribia FE - Ostadar SKT

Larunbata. 11:15. Ondartza, Hondarribian.

#### INFANTIL TX., TXAPELDUNEN FASEA

Orioko FT - Ostadar SKT  
Igandea. 16:00. Mendibeltz, Orion.

#### INFANTILEN I. MAILA

Texas Lasarte CF - Danena KE  
Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.  
Ostadar SKT - Tolosa CF

Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.

#### ARETO FUTBOLA

##### I. MAILA

Eguzki AF - Eskolapioak Herrikide

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

##### III. MAILA

Janrablu Futsal - Eguzki ISU Leioak  
Ostirala. 20:30. Harripilaga kirol., Legorreta.

#### GAZTEEN MAILA

Lauburu KE Ibarra - Eguzki B. Ayesa  
Larunbata. 13:30. Belabieta kirol., Ibarra.

#### KADETE MAILA

Eguzki G. Goxua - Coinbroker Aloña  
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

#### INFANTIL MAILA

Samaniego Orixe T.T. - Eguzki B. Escalerillas  
Larunbata. 10:00. Uzturpe pil., Tolosan.

#### SASKIBALOA

##### I. MAILA

Goizper Group BKE - Ostadar SKT

Igandea. 16:00. Labegarieta kirol., Bergaran.

#### III. MAILA

Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT

Larunbata. 20:00. Benta Berri kirol., Donostian.

#### JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - Arri BKL Loinatz  
Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

#### KADETE ERRENDIMENDU URREA

Ostadar SKT - ZAST Kuraye ZKE  
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

#### KADETE PARTAIDETZA

Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT  
Igandea. 12:00. Antigua Luberrri BHI, Donostian.

#### INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

Yoga Shala Askatuak - Ostadar SKT  
Igandea. 10:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.

#### INFANTIL PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Ekintza Ibaeta Basket  
Larunbata. 12:25. Maialen Chourraut kirol.  
Bera Bera Gros - Ostadar Urdina

Larunbata. 10:15. Manteo kirol., Donostian.

Ostadar Beltza - Aresko Infantil Tx. Gorria

Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

#### BOLEIBOLA

##### EUSKAL LIGA

Ostadar SKT - CV Sestao

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

##### EUSKAL LIGA, II. MAILA

IKA Ekialde - Ostadar SKT  
Igandea. 12:00. Ekialde kirol., Gasteizen.

##### JUBENIL-SENIOR MAILA

Aidean - Ostadar SKT (S)

Larunbata. 16:00. La Salle, Zarautzen.

Ttantta Oarso - Ostadar SKT

Igandea. 10:30. Oreta Kastola DBH, Errenterian.

#### KADETE MAILA

Ostadar SKT - Aiztondo NKT  
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

#### INFANTIL MAILA

Ostadar SKT B - Oarso Gorria  
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.  
Harresi 1 - Ostadar SKT A

Larunbata. 11:00. Hondartza kirol., Hondarribian

#### IGERIKETA

##### ALEBINEN LIGA

Buruntzaldea IKTKo alebin mailako igerilariak euren Ligako bigarren jardunaldiari egingo diote aurre.

Larunbata. 18:00. Aiurralde kirol., Andoain.

##### KZL/TEST LIGA

Buruntzaldea IKTKo benjaminen KZL/Test Ligari hasiera emango diote.

Larunbata. 15:30. Aiurralde kirol., Andoain.

#### PILOTA

##### ESKUZ BANAKA, 1. INFANTILA

Behar Zana - Intza KE (Jauregi)

Ostirala. 17:00 (3. partida). Bear Zana, Villabonan.

##### ESKUZ BANAKA, 2. INFANTILA

Mundarro - Intza KE (Lopez)  
Ostirala. 17:30 (1. partida). Udaleko pil., Astigaragan.  
Intxurre - Intza KE (Iparragirre)

Ostirala. 18:15 (1. partida). Elorri, Alegin.

Kuku - Intza KE (Maiz)

Ostirala. 18:30 (1. partida). Alkartasuna, Anoetan.

#### ESKUZ BANAKA, 3. INFANTILA

Gazteleku - Intza KE (Urdangarin)

Ostirala. 18:15 (3. partida). Arrate, Andoain.

#### ESKUZ BANAKA, 1. ALEBINA

Intza KE (Garmendia) - LAPKE  
Igandea. 11:15. Michelin kirol gunean.

#### ERRUGBIA

##### 18 URTEZ AZPIKOA

Universitario Bilbao Rugby - Zarautz Beltzak RT  
Igandea. 12:30. El Fango, Bilbon.

##### 16 URTEZ AZPIKOA

Universitario Bilbao Rugby - Zarautz Beltzak RT  
Igandea. 11:15. El Fango, Bilbon.

##### 14 URTEZ AZPIKOA

Beltzak Errugbi Eskolako kideek lagunarteko topaketa dute.  
Igandea. 10:00. Asti, Zarautzen.

##### 10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA

Beltzak Errugbi eskolako txikiak topaketaz gozatuko dute.

Igandea. 10:30. Gamarra, Gasteizen.

#### XAKEA

##### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Taulako kideek II. eta III. mailako Gipuzkoako txapelketako jardunaldia jokatu dute.

Larunbata. 16:00. Donostian.

# Eguzkiko gazteek ongi baliatu dituzte aukerak

Eguzki Bodegas Ayesa taldeak Goierri KE izan du aurkari gazteen mailan. Herritarrek neurketa hasierako planteamendua aldatu behar izan dute. Hala ere, eraginkortasun handia izan dute aurkariaren ate aurrean eta garaipena erdietsi dute, 9-5

## Txintxarri

Eguzki Bodegas Ayesa taldeko gazteek neurketa ederra egin zuten hilaren 11n Maialen Chourraut kiroldegian; 9-5 garaitu zuten Goierri KE.

Francisco Javier *Kixki* Perezen taldeak astean zehar landutakoa jarri nahi izan zuen partida hasieran, baina Goierri planteamenduarekin ezustean harrapatu zuen etxeko taldea; defentsa altua eta presio handia ezarri zuten goierritarrek.

Eguzkik aldaketa taktiko batzuk egin behar izan zituen egoerari aurre egiteko eta ederki asmatu zuen Kixkik. Aukera ugari sortu zituen taldeak eta ez zuen hutsik egin 15 minututan lau gol jarraian egin zituen taldeak. Nahiz eta Goierri erantzun modura bi gol egin, etxekoek garaipena lortu nahi zutela argi utzi zuten baloia beste bitan atera sartuz. Eta atsedendira 6-2 iritsi ziren.

Aurkariari aukerarik ez emateko akatsik ez egiteko premiarekin atera ziren bigarren zatian Eguzkiko jokalariek kantxara eta ederki egin zuten lan. Eroso jo-



Eguzkiko jokalaria bat, erasoan. TXINTXARRI

katzuz, goierritarrak kontrolpean izan zituzten eta 9-5 nagusitu ziren.

Neurketaren gakoa gol aukeren amaieran egon zela nabarmendu du taldeko entrenatzaileak: "Beste batzuetan lau saiakera egin behar ditugu gol bat egiteko, oraingoan eraginkortasun handia izan dugu eta horrek erraztu du neurketa".

Eguzkiko gainerako taldeek ez zuten garaipenik eskuratzerik

izan. I. mailako Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak gutxigatik galdu zuen Idiazabalen aurka, 5-4. 3. mailako Eguzki ISU Leihokkek hiruna berdindu zuen DAD Kutzarekin. Kadeteek ere berdinketa eskuratu zuten, 2-2 eta infantilek ezin izan zuten Eskoriazta garaitu, 1-6.

## Gabonetako txapelketa

Eguzki Areto futbol taldeak benjamin, alebin eta infantil mailako Gabonetako VI. Areto Futbol txapelketa antolatuko du abenduaren 26tik urtarrilaren 7ra.

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, zazpi eta hamar jokalarik arteko ekipoak onartuko dira eta maila bakoitzan gehieenez zortzi lehiakide izango dira.

Inskripzio orriak Goxokis Goxuak dendan jaso behar dira eta abenduaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira taldeak. Izena ematean ume bakoitzeko 10 euro ordaindu behar dira. Informazio gehiago, dendan, 699 42 02 39 zenbakian edo [eguzkiaretofutbola@outlook.com](mailto:eguzkiaretofutbola@outlook.com) helbidean eskuratu daiteke.



Kortajarena anaiek, Corellako proban lehian. M. KORTAJARENA

## Kortajarena anaiek, laugarren postua RACVN kopan

Nafarroan, Corellan jokatu da txapelketako azken rallya eta herritarrek hirugarren postua eskuratu dute

## Txintxarri

Real Automovil Club Vasco Navarrok (RACVN) antolatutako IX. lur gaineko kopa amaitu da. Lodosa, Cuzcurrita, Baños de Rioja eta Borjako jardunaldien ostean, hilaren 11n Corellan, Nafarroan erabaki ziren garaileak. Ekaitz eta Mikel Kortajarena anaiek RACVN kopako podiumetik kanpo geratu dira. Corellako Hiria V. proban, aldiz, 1. mailako zazpigarren izan ziren euren Ford Focusa gidatuz eta kopako hirugarren sailkatuak bigarrenetik ehuneko gutxitara.

Parte hartzaileek hiru alditan egin behar izan zioten aurre 10 kilometroko ibilbideari. Kortaja-

rena anaiek —Ekaitz gidari eta Mikel laguntzaile lanetan— marka ondu zuten helmugako marra igarotako bakoitzean, baina aurkariak ere fin ibili ziren. RACVN mailako bosgarren postutik hirugarrenera egin zuten bigarren saiakeran eta azkenekoan hirugarren denborarik onenari esker mantendu zuten podiuma, metatutako 17.58,600 markarekin.

Lodosan sailkapeneko buru jarri ostean, Cuzcurrita eta Baños de Rioja probetan gorabehera batzuk izan zituzten Kortajarena anaiek. Lehiaketako azken bi lasterketetan (Borja eta Corella) eskuratutako emaitzek berriro lehen postueraino eraman ditu herritarrek laugarren izatera arte.

## Beltzek defentsa erakustaldia egin dute Bera Beraren aurka

Neurketa borrokatua jokatu dute Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak eta Bera Bera AVK-k Euskal Ligan

## Txintxarri

Euriari aurre eginez, Michelin kirol guneko harmailak errugbi zaletuz bete ziren. Euskal Ligako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak eta Bera Bera taldeek neurketa borrokatua jokatu zuten eta herritarrek eraman zuten saria 17-12 irabazita.

Partida hasi eta bi taldeek argi utzi zuten entsegu marrara iristea zail izango zela. Ondorioz hemezortzigarren minutura arte

ezin izan zuten beltzek donostiarren defentsa hautsi; Gavi Gavilaneke egin zuen entsegua.

Baina gutxi iraun zuen poztasunak. Lau minuturen buruan, Bera Berak markagailua berdindu zuen entsegu marra igarota.

Bi taldeek defentsa tinko mantendu zuten eta kontaktu handiko jokoa izan zen hurrengo minutuetan. Hala ere, Beltzakeko Anartz Zendoiak lortu zuen zuloa egin eta entsegua egitea. Tamalez, mi-

nutuetara donostiarrek erasoari erantzun zioten eta bost puntuez gain, gauzatzea ere lortu zuten neurketan aurre hartuz. 10-12 iritsi ziren atsedendira.

Zelaira itzultzean etxeko taldeak entsegua egiteko aukera garbia izan zuen, baina Bera Beraren defentsak eraso gelditu zuen. Hurrengo minutuetan baloia batetik bestera ibili zen eta 64. minutuan, beltzek helburua lortu zuten; Eneko Arbizuk marra igaro eta Julen Espinosak gauzatzea lortu zuen, 17-12. Bi taldeak saiatu arren, markagailua ez zen gehiago mugitu.

## Beste neurketak

Beltzen 16 eta 18 urtez azpiko taldeek ez zuten zorte bera izan.



Unibertsitarioren aurkako partida. B. ARROYO

Gaztediren aurka neurtu zituzten indarrak eta Gasteizeko taldeek euren nagusitasuna erakutsi zuten partidak 0-50 eta 5-19, hurrenez hurren, irabaziz.

Bestalde, Alex Saleta herritarrek Castilla y Leon Iberians taldeko hamabostekoan jokatu zuen Israelgo Tel Aviv Heat-en aurka, Valladoliden. Neurketa galdu (20-38) arren, Saleta selekzioeko jokalaririk onena izendatu zuten. Saletaz gain, Beltzak RTko harrobiko Urko Zumeta ere lehiatu zen partidaren. Ez da hau selekzioarekin jokatuko duten lehia bakarra izango. Biak sartu dira taldearen deialdi berrian; Portugalgo Lusitanos izango dute aurkari hilaren 19an.

Horrez gain, Gipuzkoako 13 eta 14 urtez azpiko taldeak entrenamendu saioa izan zuten eta bertan izan ziren Beltzak Errugbi eskolako Beñat Zabala eta Erik Perez kideak.

# Intzako pilotariek, zortzitik hiru garaipen

Gomazko pala zein eskuko Gipuzkoako txapelketako jardunaldiari aurre egin diote Intzako pilotariek maila ezberdinetan. Neurketa ugari Lasarte-Orian jokatu dira; 3. mailako infantil zein senior bikoteek irabazi dituzte euren hitzorduak

## Txintxarri

Pilota zaletuek zazpi partidaz gozatzeko aukera izan zuten hilaren 10ean eta 11n, herrian. Denetariko emaitzak izan ziren.

Loidibarrenen eman zioten hasiera Intzako kideek asteburuari. Infantil 3. mailako Unai Lizarraga nagusi izan zen eta Alde Zaharrako 8-1 eta 8-6 garaitu zuen. Jarraian, Gomazko Palako 3. mailako bikoteak ere garaipena erdietsi zuen. Tolosako Beotibar 4 bikotearen aurkako neurketa borrokatua izan zen. Baina 12na berdindu ostean, tolosarrek ezin izan zuten herriarren erritmoa jarraitu eta 25-14 irabazi zuen Intzako bikoteak.

Hilaren 11n, Michelin kirol gunean bi jardunaldi ezberdin izan ziren. Goizean senior mailako bikoteak Abantzu 22-14 gainditu zuen. Jon Pello Artetxek eta Haritza Diaz de Gereñuk eroso jokatu eta nagusi izan ziren neurketa hasieratik.



Infantil 3. mailako neurketa. TXINTXARRI

Arratsaldean, aldiz, infantil mailako neurketen txanda izan zen. Lehenik 2. mailako kirolariak izan ziren lehian eta Intzako kideek ezin izan zuten garaipena erdietsi.

Lehen neurketan, Añorgako pilotariak Arkaitz Lasa 0-2 (2-8 eta 0-8) gainditu zuen.

Hurrengo bi partidetan, aldiz, Intzako kideak ederki jokatu eta borrokatu zuten eta berdinketa hautsi behar izan zuten hirugarren jokoarekin. Emaitza ez zen aldekoa izan, ordea.

Ekhi Maizek puntu batengatik (8-5, 1-8 eta 3-4) galdu zuen Oiarpeko kirolariaren aurka eta Itxaso Iparragirreri ere gutxiatik (4-8, 8-2 eta 1-4) egin zion ihes neurketak.

Oier Jauregi 1. mailako infantilak ere ez zuen egun ona izan eta Tolosako ordezkariaren aurka erori zen (7-8 eta 8-1). Intzako Jose Felix Solanok azaldu duenez, eskuetan arazoak ditu pilotari gazteak eta horrek eragin handia izan du azken lehiatan.

Horiez gain, alebin mailan, Lier Garmendiak ezin izan zuten Munderroko aurkaria gainditu. Neurketa berdindua izan zen eta bana berdindu ostean (3-8 eta 8-6), hirugarren jokoan erabaki zen garailea. Astigarragako pilotariak eraman zuen saria (4-2).

## Lasarteoriatarrak, Gipuzkoako txapelketako podiumean

Bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu dira herritarrek Superbeterano mailako xake txapelketan

## Txintxarri

Bakarkako Gipuzkoako Xake txapelketak jokoan dira. Urritik xake jokalariek lurraldeko hainbat txokotan batzen dira maila ezberdinetako norgehiagokak aurrera eramateko. Batzuk dagoeneko amaitu dute lehiaketa; superbeterano mailan, esate baterako, bi herritar izan dira lehen postuetan. Taula Xake Klubeko Jose Ignacio Echeverria Eleicegui bigarren sailkatu da eta Gros taldeko Juan Rodriguez Gonzalez herritarra podiumeko hirugarren mailan izan da.



Saribanaketako irudia. HONDARRIBIA-MARLAXKA X.E.

65 urte baino gehiagoko jokalariek bost igandeetan lehiatu dituzte jardunaldiak Beraunen, Errenterian. Gorabeherak izan dira sailkapenean eta bi herri-

tarrak buru izan dira txapelketako momenturen batean. Hala nola, Echeverria zen lehena azken saioa baino lehen.

Azken saio horretan, Hondarribia-Marlaxkako Fernando Hoyos Fernandez garaitu zuen Echeverriak; Rodriguez, berriz, mailako txapeldun izango zen eta Groseko taldekide Jose Angel Burgana Lardizabalen aurka galdu zuen.

## Beste mailak

Echeverriak ez du atsedetik izango; bigarren mailako txapelketan ere lehian ari da. Hirugarren mailan ere bada Taulako ordezkariarik: Juan Cruz Figueras Hernandez, Alejandro Sanchez Andres, Ander Etxauri Lizarraga eta Juan Luis Varela Avellanal. Bi lehiaketa horiek hilaren 25ean jokatu dute azken jardunaldia.



LOKEko judokak, Amurrioko Hiribildua txapelketan, eskuratutako dominekin. LOKE JUDO

## LOKEko judoek lau domina ekarri dituzte Lasarte-Oriara

Absolutu mailako Espainiako txapelketako sailkapen proba eta Amurrio Hiria torneoa lehiatu dituzte judoek

## Txintxarri

Kadete, infantil zein absolutu mailako Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) judoek hitzordu garrantzitsuei aurre egin zieten hilaren 11n.

Gaztetxoek Amurrio Hiribilduko 29. txapelketan parte hartu zuten eta hiru domina eskuratu zituzten: urrezko bi eta brontzezko bat. Infantil mailan Ane Linazasoro garaile izan zen eta Iraia Diezek brontzezko domina jantzi zuten. Kadete mailan ere Ekain Luis podiumeko gorenera igo zen.

Horiez gain, LOKEko beste judoka batzuk ere lehen zazpi-

artearen sailkatu ziren. Bosgarren izan ziren Maria Escribano, Ariane Luis, Marco Iriso eta Iago Izquierdo infantilak; Tarieli Tato Kevlishvili kadete eta Unai Curiel infantilak, aldiz, zazpigarren amaitu zuten txapelketa.

Asteburuko laugarren domina absolutu mailako Espainiako txapelketako iparraldeko sailkapen proban lortu zuten herriko kirolariek. Asier Sagasti 100 kilo azpiko mailako hirugarren sailkatu zen eta Haritz Urdangarin zazpigarren izan zen 81 kilo azpiko kategorian.

## Jon Martin, Espainiarekin Munduko txapelketan aurrera

Herritarra Espainiako selekzioarekin 17 urtez azpiko Munduko Txapelketa jokatzeko ari da Indonesian

## Txintxarri

Jon Martin herritarra eta 17 urtez azpiko Espainiako futbol selekzioa Munduko txapelketako final zortzirenak jokatu dituzte.

17 urtez azpiko Munduko txapelketa dago jokoan Indonesian. Espainiako selekzioak B multzoan lehiatu du lehen fasea; bi neurketa gainditu ditu -2-0 Kanadaren aurka eta 0-1 garaitu zuen Mali- eta bina berdindu du Uzbekistanen aurka. Real Sociedad taldeko Jon Martin herritarrek Kanada eta Uzbe-

kistanen aurkako neurketetan parte hartu du; azken horretan, kapitan lanak egin ditu, gainera.

Emaitza horiekin B multzoko lehen sailkatu da 17 urtez azpiko taldea eta final zortzirenak jokatu ditu hilaren 20an, astelehenarekin. Aurkariaren zain daude Jon Martin eta selekzio kideak. A, B eta C taldeen 3. talde onenaren aurka lehiatuko behar dute kanporaketa eta gaur, ostirala C multzoko azken jardunaldiaren ostean jakingo dute zein talde izango duten aurrean.

# Herritarrak, ederki Behobia-Donostia proban

Behobia-Donostia eta Arroitzeko trailean parte hartu dute herritarrek hilaren 11n eta 12an. Korrika edo patinetan Lasarte-Oriako 162 herritarrek Donostiako helmuga igaro dute; horien artean, Presa eta Centeno izan dira azkarrenak

## Txintxarri

20 kilometro dira Behobia eta Donostia artean daudenak, baina hilaren 12ko giro beroarekin bati baino gehiagori luzeago egin zitzaion lasterketa. 25.899 lasterkari eta patinatzaile bildu ziren Behobiako irteeran eta pixkanaka ibilbidean barrena zegoen ikusleen animoek hauspotuta Boulevardreko helmuga igaro zuten gehienek.

Lasarteoriatarrak eta herriko taldeetako kideak ere izan ziren bai korrika baita patinen gainean ere.

166 herritarrek izena eman bazuten ere, 160 izan ziren Donostiara iritsi eta amaitu izanaren domina jantzi zuten korrikalariak. Horien artean azkarrena Aloña Mendi taldeko Jon Presa herritarra izan zen; sailkapen orokorrean 34. izan zen. Presak 01.07.20 behar izan zituen lasterketa amaitzeko eta bere marka ondu zuen kirolariak. Lasarte-Oriako lehen emakumea, aldiz, Leire Centeno izan zen 01.35.19eko marka eginez.

## Patinatzaileak

Eta patinatzaileen lasterketan, aldiz, bi herritar izan ziren lehian. Lasarte-Oria Bai! kro-



Herritar eta korrikalari ugari izan zen Euskotreneko geltokian Behobiara joateko. ISAAC FARRRE RICO

ko garaile Ximon Villalobos izan zen lehena helmuga igarotzen. Irristaka taldeko kideak zazpigarren postuan (42.05) eskuratu zuen.

Bigarren herritarra Juanan Alvarez izan zen. Ibilbidea 01.02.43 denboran egin zuen.

## Beste probak

Lasarteoriatarrak ez ziren errepidean bakarrik lehiatu, Arroitzeko (Nafarroa) kros trailean parte hartu zuten hilaren 11n Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarte-

(LOTME) David Garcia eta Iñes Aguado. Parte hartzaileek 23 kilometroko edo bederatzikilometroko probak egiteko aukera zuten. Garciak eta Aguadok distantzia luzeari egin zioten aurre eta lehenak 02.30.50 behar izan zituen helmugara iristeko; bigarrenak, aldiz, 03.10.41.

Aurreko asteetan ere, hainbat probetan izan dira herriko korrikalariak, hala nola, Beñat Elzo mendi lasterketan edo Errioxako trail serietako Camero Viejoko proban.

## Bigarren hiruhileko ikastaroen izena emate epea irekiko da

Adin guztietarako jarduerak eskaintzen ditu Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak hiru hilabete behin

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuek ikastaro aukera zabala eskainiko dute ikasturteko bigarren hiruhilekoan. Adin guztietako herritarrei zuzendutako saioak izango dira. Izen ematea hilaren 20an, astelehenarekin hasiko da.

Maialen Chourraut kiroldegian egingo diren jarduerak honakoak izango dira: igeriketa eskola, helduentzako igeriketa, haurtxoentzako ur jarduerak, haurdunentzako ur jarduerak, haurdunentzako aretoko jarduerak, erditze osteko gimnasia eta padela.

Ikastaroak urtarrileko bigarren astean, hau da, hilaren 8an hasiko dira eta Aste Santua baino lehen, martxoaren 18ko astean izango dituzte azken saioak.

Jardueretako egun eta orduak jakin edo informazio gehiago eskuratzeko hiru modu eskaintzen ditu kirol zerbitzuak: *kirolak.buruntzaldea.eus* webgunea, Lasarte-Oriako atalean; kiroldegiko harrera gunean eta 943-37 61 82 telefonora deituz.

Izena ematea, aldiz, webgunearen bitartez edo kiroldegiko bulegoan egin behar dute interesdunek.



Bigarren jardunaldian parte hartu zuten Buruntzaldea IKTKo igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

## Denboraldiko lehen gutxienekoak Hernaniko igerilekuan etorri dira

Neguko Gipuzkoako zein Euskal Herriko txapelketerako gutxienekoak lortu dituzte infantil mailako lau kidek

## Txintxarri

Neguko Ligako bigarren jardunaldia lehiatu zen hilaren 11n Hernaniko kiroldegian. Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutu mailako hamalau kidek parte hartu zuten lehiaketan. Taldeko prestatzaileek azaldu dutenez, "taldeko hainbat partaide etxean geratu behar izan ziren gaixoaldi, lesio eta bestelako arrazoiengatik baina bertan egon zirenak gustura aritu ziren". Guztira hemeretzi marka pertsonal ondu zituzten igeriketa taldeko kideek (ikus beheko taula).

## Infantilek, gutxienekoak

Lortutako emaitza horiekin, infantil mailan dauden gazte batzuk Gipuzkoako zein Euskal

Herriko Neguko Txapelketerako gutxienekoak lortu dituztela ere aurreratu dute igeriketa taldeko prestatzaileek: "Maila horretan giltza izenez ezagutzen ditugun gutxienekoak egin behar dituzte Neguko Txapelketetan parte hartzeko. Hau horrela, Mayi Gorostegui eta Nora Miguelezek 400 m. lau estiloetan egindako markarekin Gipuzkoako Neguko Txapelketerako txartela eskuratu dute eta Mario Amanategi eta Oihan Matutegi berriz, Euskal Herriko Neguko Txapelketakoa".

Buruntzaldea IKTKo igerilariak Ligako gainerako jardunaldietan euren helburuak lortzeko lanean jarraituko dute. Abenduaren 2an, Hernanin izango dute hirugarren hitzordua.

## Ondutako markak

- **Nora Miguelez** 400 m. lau estilo 50 m. pasea (40,87) eta 100 m. tximeletako pasea (01.35,21) zein 100 m. lau estilo proba, 01.30,53.
- **Iñaki Garcia** 50 m. libre, 26,16; 50 m. tximeleta, 30,25 eta 100 m. libre, 58.06 probak.
- **Lucia Rey** 50 m. libre proba, 38,38; 200 m. libre saioa, 03.10,94 eta azken honetako 100 m. pasean 01.30,86.
- **Amair Iparragirre** 50 m. libre proba, 33,34.
- **Ane Meyer** 200 m. libre, 02.50,11 eta 50 m. libre probak, 33,97.
- **Mayi Gorostegui** 400 m. lau estilo proba, 06.33,97.
- **Irati Etxeberria** 400 m. lau estilo proba, 06.53,59 eta proba bereko 100 m. tximeleta pasea, 01.36,20.
- **Garazi Etxeberria** 100 m. bular proba, 01.18,91.
- **Iker Gorostegui** 200 m. bular proba, 02.51,68.
- **Ibon Elola** 100 m. lau estilo proba, 01.12,61.

## ZORION AGURRAK



**Linda**  
Hankaz gora, zubia eginez, txilipurdika eta jauzika, mila zorion bihotzez panpintxo!! 6 muxu erraldoi

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

## Internet

· txintxarri.eus/  
zorianagurra.  
· Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzaileekin ez baduzu izena eman.  
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

## Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 17	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 18	GIL
IGANDEA, 19	GIL
ASTELEHENA, 20	URBISTONDO
ASTEARTEA, 21	GIL
ASTEAZKENA, 22	DE ORUE
OSTEGUNA, 23	DE MIGUEL

**Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Labumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUNA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDALTZAINAK: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

## Beltzak RTren saskia

Jaki eta edariz betetako saskia zozketatuko du aurten ere Beltzak RT taldeak. Gure Etxean tabernan edo Errugbi taldeko kide zein eskolako jokalariek saltzen dituzte tiketak euro batean. Bildutako dirua eskolako gastuetarako erabiliko da. Saskia Gure Etxea tabernan dago ikusgai.

## Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen (Oriarte Landaberri eraikinean) biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

## ESKUTITZA

## Nire kexa Udalari

G.A.

Lehen ere egina naiz. Hozgailua herrian bagenuen. Urte erdia daramagu gabe. Horrenbeste behartsu daukagu herrian. Antxordokik badaki. Neguko atariangaude. 300 euro badaude. Beraz ez izan hain bihotz gogorak, zihur edo zikoitzak.

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago. Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

## GARAJEA

## ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

## LANA

## ESKAINZA

Lanaldi erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kobxa izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

## ESKARIA

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketara...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

## BESTELAKOAK

## SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean ebatera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

## AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asteroko kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan

[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)  
943-37 14 48  
688 68 35 10

## SUDOKUA

	5	9	3			4		2
	1	4				7		
7				6	4			9
		1	8		2	6	3	
			4	3	6		7	1
4	3		5		1			
9	6			4				
		3	6		9		4	7
	4		2		3		5	6

Sudoku10.net

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66

[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10

[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.  
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 17

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu elkarteko ikasleek egurrarekin egindako lanak erakutsiko dituzte hilaren 26ra arte. Astegunetako ordutegia 18:00etatik 20:00etara artekoa da, eta, asteburuetakoa, 12:00etatik 14:00etara.

**Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.**

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Zaria Koru Eskolako kideek *Come again* kontzertua emango dute, Danok Kidek eta udalak antolatutako XVIII. Musika Topaketen barruan. Sarrera doakoa da.

**Ama Brigitarren komentua, 19:45ean.**

### LASARTE-ORIA Zinema

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruan, *O Corno* filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute.

**Kultur etxea, 20:00etan.**

## LARUNBATA 18

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeko kideek VII. Txerri Hiltzearen Jaia ospatuko du:

**09:30ean**, txerria zatitzea.

**10:30ean**, hamaiketako eta txorizoak nahiz odolkiak egiten ikasteko tailerra.

**14:30ean**, herri bazkaria: garbantzuak sakramentuekin eta meloia.

**16:00etan**, karaokea.

**21:00etan**, afari herrikoa: haragi parrillada, entsalada eta tarta.  
**Extremadura Etxea, 09:30ean.**

### LASARTE-ORIA Literatura

Literatur lehiaketetako sariak banatuko dituzte udal ordezkariak.  
**Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 12:00etan.**

### LASARTE-ORIA Jaialdia

Zero Sette Akordeoi Orkestrak XX. Akordeoi Jaialdia aurrera eramango du. Sarrerek 6 euro balio dute.  
**Kultur etxea, 19:00etan.**



### LASARTE-ORIA Jaialdia

XX. Akordeoi Jaialdia aurrera eramango du Zero Sette Akordeoi Orkestrak. Claudio Constantini bandoneoilari eta piano jotzailea eta eXpreSSio duo bikotea ariko dira, Garazi Navas eta Maria Zubimendik osatutakoa.  
**Bihar, hilak 18, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 19:00etan.**

## IGANDEA 19

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeko kideek VII. Txerri Hiltzearen Jaia amaituko dute:

11:00etan, hamaiketako.

14:00etan, herri bazkaria.

**Extremadura Etxea, 11:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*La Patrulla Canina: la superpelícula* filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

**Kultur etxea, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*O Corno* filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 eurotan.  
**Kultur etxea, 19:30ean.**

## ASTEARTEA 21

### LASARTE-ORIA Literatura

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruan, irakurle txokoko kideek Garazi Arrula idazlea gonbidatuko dute.  
**Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.**

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Santa Zezilia egunaren harira, Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertua emango dute.

**Manuel Lekuona Kultur etxea, 19:00etan.**

## ASTEAZKENA 22

### LASARTE-ORIA Literatura

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruan, *Berdintasunean liburu*ekin jolastuz saioa emango du Maria Garcia Laderok, 6 eta 8 urte arteko haurrentzat. Sarrera doakoa da.  
**Udal Liburutegia, 17:30ean.**

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Oier Araolaza antropologo, dantzari eta idazleak Euskal Inauteriei buruzko solasaldi bat emango du.  
**Mercero gunea, 17:30ean.**

## OSTEGUNA 23

### LASARTE-ORIA Solasaldia

Greba feminista orokorraren atarian, zaintzari buruzko solasaldi ireki bat antolatu du Borobileen elkarteak. Herritarrak bertaratu eta parte hartzera animatu ditu.  
**Oriarte Landaberri institutua, 19:00etan.**

## LARUNBATA 25

### LASARTE-ORIA Tailerra

## ZINEMA



### LABURPENA

#### 'O Corno'

**Zuzendaria:** Jaione Camborda. **Gidoia:** Jaione Camborda. **Argazkia:** Rui Poças. **Ekoizleak:** Esnatu Zinema, Miramemira, Elastica Films, Bando a Parte, Bulletproof Cupid. **Herrialdea:** Espainia (2023). **Iraupena:** 103 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Janet Novas, Siobhan Fernandes, Carla Rivas, Daniela Hernan Merchan, Julia Gomez, Nuria Lestegas, Diego Anido.

## Biziraupena, jokoan

Maria (Janet Novas) Galizian bizi da, Pontevedrako Arousa uhartean. Mariskoa jasotzea du ogibide. Horrez gain, erditzera doazen emakumei laguntzen die, mimoz eta profesionaltasun handiz. Ezusteko gertaera bat tarteko, bizitokitik alde egin behar du eta bizirauteko borrokatu, besteak beste, Galiziako nahiz Portugalgo kontrabandistek erabiltzen duten muga bat zeharkatuta.

Jaione Cambordaren estreinako film luzearen bi pase aurrera eramango dituzte herrian. Lehenengo, gaur, hilak 17, kultur etxean, 20:00etan. Okendo Zinema Taldeak eta udalak elkarlanean antolatutako Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruan. Bigarren emanaldia etzi izango da, 19:30ean, toki berean. Sarrerek 6 euro balio dute.

Lasarte-Oriako neska gazteei zuzendutako autodefentsa feminista tailerra antolatu dute, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruan.  
**Kultur etxea, 09:00etan.**

### LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Lasarte-Oriako Udalak elkarretaratze bat antolatu du, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren baitan.  
**Okendo plaza, 12:00etan.**

## IGANDEA 26

**LASARTE-ORIA Zinema**  
*Vampiro al rescate* filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

**Kultur etxea, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*Vidas pasadas* filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.  
**Manuel Lekuona Kultur etxea, 19:30ean.**

## ASTEARTEA 28

### LASARTE-ORIA Bakarriketa

Bea Egizabal clownak *Magma mia* bakarriketa egingo du, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunerako egitarauaren barruan (azken jarduera izango da). Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.  
**Manuel Lekuona Kultur etxea, 19:00etan.**

# Bideo **TIEN 21** Lagunak

- Finantziakoa neurria
- Garraio zerbitzua
- Erabilikako gailuen jasotzea
- Aholkularitza espezializatua
- Preziorik onena

Etxekotresna elektrikoetan adituak



ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

*Ez galdu gure eshaintzak!*

# BLACK FRIDAY

*azaro osoan zehar*

Donostia eorbidea, 2 · LASARTE-ORIA | Tel: 943-37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

# bertako

igogailuak | ascensores

**BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

## IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan dute konfiantza

943 903 450  
[bertako.eus](http://bertako.eus)



## AUZOLAN DIGITALA

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan Erronka berri bat dugu!

Euskal hiztunen laguntza beharrezkoa da

### BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI EUSKARAZ IRAKASTEKO

# GAITU.EUS

-en sar zaitez

Ahots grabaketa sorta erraldoia sortu nahi da milaka ahots lortzea eta euskarazko ahotsen datu basea ahalik eta gehien handitzea.



**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO



Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua



Euskararen erakunde publikoa Office public de la langue basque

HIRUKO ITUNA

euskaltzateen topagunea

